

# noaua



Usurbil, Zero Zabor  
udalerrien gailurrean



**‘Dantzaroa’ zikloa  
asteburu honetan  
abiatuko da**

Udarregi  
IKASTOLA



# USURBILGO HAUR ESKOLA



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA  
2021, 2022 eta 2023 urteetan jaiotako hurrei zuzenduta

- MATRIKULA EPEA: apirilaren 17tik 28ra
- HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA: 7:30-17:00.
- EGUTEGIA: astelehenetik ostiralera. Iraila-uztaila.
- INFORMAZIOA ETA HITZORDUA: 943361216 telefonoan  
8:00-15:00etara  
edo haureskola@udarregi.eus-en

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu

# kw BELOKI

KELLERWILLIAMS.

Zerbitzu Inmobiliarioak iritsi da  
eta gelditzeko etorri da

18 urtez merkatuan  
5 bulego ingurunean  
eta orain **USURBILEN** zerbitzura!

ESKATU ZURE ETXEBIZITZAREN BALORAZIOA  
GASTURIK ETA KONPROMEZURIK GABE

**Profesionaltasuna eta gertuko tratua!**



Ana I. Flores Rolin  
686 55 41 45  
anaisabel.flores@kwspain.es  
ana.kw.beloki



Joseba Goenaga  
678 63 69 66  
joseba.goenaga@kwspain.es  
josebagoenaga\_kwbeloki



## Albisteak iruditan

# Urrezko Kalabaza Ixabel Agirresaroberentzat

Usurbilgo kontalaria saritu dute Tolosako Ahoz Aho ahozkotasunaren nazioarteko jaialdian. Urrezko Kalabaza Saria eman zioten. Irantzu Mantxo eta Iñaki Agirrezabalen eskutik jaso zuen Usurbilgoak aipatu kalabaza. Anjel Lertxundi idazle oriotarrari, Iñaki Hidalgo Ordiziako kultur teknikariari eta Yoshi Hioki kontalari eta margolari japoniarrari ere urrezko kalabaza bana eman zieten. Guztiek ahozkotasunari, kontalaritzari egin dioten ekarpena aitortu nahi izan zieten. Zorionak!

### Ugaitz Agirre, Kontaketa Erotikoen Lehiaketan saritua

“Sorginkerietan”, hala izena du Ugaitz Agirrek Kaixomaitia.eus-ek antolatutako Kontaketa Erotikoen Lehiaketaren hirugarren edizioa aurkezturiko lanak. Apirilaren lehenean saritu zuten Donos-



Tolosako 'Ahoz Aho' ahozkotasunaren nazioarteko jaialdian jaso zuen saria.

tiako Elkar dendan egindako ekitaldian. 16 sortze lan aurkeztu zituzten, haietatik zortzi saritu zituen epaimahaiak. Usur-

bildarraren “Sorginkerietan” lana aipatu web orriko “Blog” atalean irakur dezakezue. Zorionak!

## Laburrean

### 1968ko kinto bazkaria

Apirilaren 29an bilduko dira 14:00etan bazkaritarako Artzabalen. Izen-emateko 30 euro ordaindu hilaren 25a baino lehen, Euskadiko Kutxaren kontu zenbaki honetan: ES 44 3035 0140 3214 0003 4642. Kontzeptuan izen-abizenak zehaztu.

### Zaintza aztergai

“Zaintza lanak: autonomia eta burujabetza sustatzeko eredurantz” izeneko saioa antolatu dute apirilaren 20rako 18:00etan Potxoenean. Gai hauei lotuta iazko azarotik abian den zikloaren baitan egingo da solasaldia.

### Baterajotzea Usurbilen

Euskal Herriko Neska\* Gazteek Usurbil hautatu dute aurtengo Baterajotzea egiteko. Urrian izango da. Aste hasiera honetan aurkeztu dute hitzordua Mikel Laboa plazan. Xehetasun gehiago, datoren aldizkarian.

# noaia

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaia.eus /// www.noaia.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariako koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Diseinua:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Alazne Arruti

## Ongizateaz

**O**rokorrean ongizatearen kontzeptua, zoriona edo zoriontasunarekin lotzen dugun hitza izan da. Baina azken mendean, esanahi zehatza goa hartu duela esan daiteke. Izan ere, bizi garen gizartearen kokaturik, ekonomiaren alorrean ere baliatzen ari da, besteak beste. Zuk ordea, nola definituko zenuke ongizatea?

Premiaz, arrakasta materialetik haratago pentsatu eta benetan garrantzitsuak diren gauzak balioan jartzeko desafioaren aurrean gaudelakoan nago: harremanak zaintzekoa, garapen pertsonalaz gain, inguruan eragin positiboa sortzeko moduak bilatzekoa, besteak beste. Bakarka zein gizartearen, gure bizitzak erdigunean jarri eta ongizatea bilatzeko ahalegina, baliotsua iruditzen zait oso. Eta horretarako ezinbestekoak dira, erresilientzia eta osasun emozionala.

Iaz joan nintzen lehen aldiz terapeuta batengana, nahiz eta aspaldidanik nuen joaten hasteko gogoia. Baina ez dut urratsik eman nire zirrarak gainezka egiten sumatu ditudan arte. Nire barruan, orain arte sentitu ez zituen min eta pisuak sumatzen hasi naizen arte. Edalontzia, tantaz tanta, gutziz



“Bakarka zein gizartearen, gure bizitzak erdigunean jarri eta ongizatea bilatzeko ahalegina, baliotsua iruditzen zait oso”.

### ALAZNE ARRUTI

**“Premiaz, arrakasta materialetik haratago pentsatu eta benetan garrantzitsuak diren gauzak balioan jartzeko desafioaren aurrean gaudelakoan nago”**

bete den arte. Bizitzan, agian aspalditik kokatua zegoen harri puska handi bat, erdiz erdi topatu dudana arte.

Bitxia da, ezagutzen ez duzun pertsona baten aurrean jarri, eta beragandik zer behar duzun definitzea. Baina, beste eremu batzuetan, ezkutuan eta giltzapean jasotzen ditugunak, erraz topatu dezakete kanporanzko bidea halako egoeretan. Hala ere, ez du zertan erraza zein atsegina izan.

Nire kasuan, egoera honen aurrean urratsak ematen hasiteko lagungarria izan zaidan

arren, gauzak lasaiago hartu eta nire buruari denbora bat ematea erabaki dut. Sentimendu eta sentsazioak pausatzen uzteko beharra sentitu baitut saio oso intentsu batzuen ostean. Baina ez dut porrota baten gisan bizi izan inola. Zaintza moduan baizik.

Hala ere, beste bide batetik heldu zaidan aukerari esker, beste modu bateko ongizatearen inguruko lanketa bati ekin diot ia nahigabe. Beste gisa batekoa diot, zeren, espazio kolektibo eta seguru bat topatu dut bide honetan sakontzen hasteko. Eta ez nuen sekula gai hau taldean lantzeko asmoa izango nuenik pentsatuko, egiaz. Baina aizue, oraintxe, egoera eta momentu honek, horixe eskatzen didanez, heldu beharko.

Eta hasi dugu bidea umoretik, sinpletasunetik, norbere esperientzietatik eta epairik gabe. Ostera ere, nire burua

berrezagutzeari ekiteko tarte bat eraikitzen hasi naiz. Eta galdera ustez erraz batzuekin hasi dut ibilbide berri hau: Nola sentitzen naiz oraintxe? Zertarako eseri naiz ezagutzen ez ditudan eta oso anitzak diren pertsonen osatutako zirkulu batean? Zein unetan urrundu ote naiz hainbeste nigandik? Nola higatu zait barrea eta zoriona? Nola ez dut sumatu nire falta lehenago? Nola ez digute irakasten arnasketen garrantziaz txikitik? Zergatik hainbesteko minak, lepo eta bizkarrean? Zer behar dut? Erantzunik gabeko zerrenda amaiezin honekin jarraitu nezake bihar arte.

Eta lerro hauek idazten ari naizen bitartean, Physis Versus Nomosen Zenbaterainoko drama kantua entzuten ari naiz. Honela diolarik: *Lasai bizitzeko traba. / Bihar hobe baten zama. / Aske asetu beharra. / Gerotuko denaren hondarra. // Hegan egin dezagun / izan bitez salbu. / Oinak lurrean direla / pentsatu dezagun / behin biziko garela, / bideari kasu. / Dena ikasterikan bagenu...*

Eta automatikoki pentsatu dut, neurri handi batean pozgarria egiten zaidala hogeita hamar urte betetzeko oraindik tarte bat falta zaion gorputz, bihotz eta garun honek, oraindik ikasteko hainbeste duela konturatzea.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

## Komikia



## Ika-mika

## Kirol-epaile lanari aitortza

**G**aur egungo jendarteak haur eta nerabe aktiboak nahi ditu, eta, egia esan, gurean jarduera fisikoa edota kirola egiteko eskaintza zabala daukagu. Zalantzarik gabe, kirola praktikatzea onuragarria eta osasuntsua izan daiteke, baina horretarako moduak eta adin-tarteak kontuan hartzea ezinbestekoa da.

Izan ere, joera handia daukagu helduen praktikak ereduzat hartuz, haur eta

nerabeen edozein kirol edo jarduera fisiko lehia bihurtzeko. Baina lehiakortasun horri ateak zabaltzen dizkiogunean, arazo ugariarekin topatzen gara, eta askotan ikusten ditugu tokiz kanpoko jarrera, errespetu falta edota liskarrak ere.

Lehiaketak epaileak behar ditu. Eta epaileak behar baditugu, zergatik jartzen dira zalantzan haien erabaki asko eta asko? Zergatik Kirol Elkar-teetako gazte, heldu, zuzen-

dari nahiz gurasoek ez dute epaile lanik egin nahi izaten? Erantzuna argia da: kirol (maioritarioen) ikuskizunetan txertatua dagoelako epailea iraintzea edo hari errespetu falta azaltzea. Eta gaztetxoan arteko norgehiagoketan ere errepikatu egiten da ohitura txar hori...

Horrez gain, eta epaileen harira, gaztetxoan arteko lehiaketetan nesken eta mutilen artean ematen den ezberdintasuna ere onartezina dela azpi-

marratu nahiko nuke. Futbolearen esaterako, infantil mailan, mutilen kasuan Federazioak jartzen du epailea, baina nesken partidetak ez...

Urteak daramatzagu nesken praktika fisikoa sustatzen eta kirol munduan lekua aldarrikatzen. Eta horretan jarraitzeko funtsezkoa da, epaileen lana errespetatzeaz gain, generoen arteko ezberdintasun horiek desagerraraztea.

**Manu Urbieta Illarramendi**

## Ika-mika

## Usurbilgo Plan Orokorriari alegazio sorta aurkeztu diogu

**J**oan zen 2022ko urriaren 13an eman zion hasierako onarpena udal batzarrak Usurbilgo Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari. Jendaurrean ikusgai egon da otsailaren 28ra arte.

Ingurumenean eragina duten ataletan jarri dugu guk arreta. Gure lurra, airea eta ura babesteko neurriak hobetzeko ahalegina egin dugu, guztira 14 alegazio aurkeztuz. Aurkeztutako alegazio guztiak xehetasunez azaltzeak luze joko luke, baina, bakoitzaren zertzelada batzuk aipatuz, herritarrok ere, egin dugunaren berri izatea da gure nahia. Baso-landaketak, babes bereziko gunek, elikadura burujabetza, polinizatzaileen kontserbazioa, uholde-lautaden babesa, hutsik dauden etxebizitzak aktibatzea, mugikortasuna eta Ori ibaiaren natur kontserbazioa babestea jasotzen dute gure alegazioek.

Eukalptoaren landaketa debekatzeko neurria HAPOn jasotzea ahaztu zaiola gogorarazi diogu udalari, horrela onartu

baitzuen iaz guk aurkeztutako mozioa onartuz. %50etik gorako malda duten baso-erabilerako eremuetan hazkunde moteleko espezieak bakarrik erabiltzea onestea eta babeserako basogintza eremuetan landaketa lanak eskuz egitera mugatzeko neurria ere eskatu dugu.

Babes bereziko guneean (hezegunek, erriberak,...) aisialdiko edozein motatako jarduerak, espreski debekatzeko ere proposatu dugu. Erlezaintza estentsiboa lurralde osoan baimentzea izan da beste eskari bat. Natur gunek bere funtzioa benetan bete dezaten, euren arteko loturak behar beharrezkoak dituztenez, herrian ditugunak lotzeko, korridore ekologikoak sortzea proposatu dugu.

Elikadura burujabetza indartze aldera, tokiko ekoizpen ekologikoa lantzeko eremuak aurreikusi, eta horiek ezartzeko baldintzak jasotzen ditu honetarako aurkeztu dugun alegazioak.

HAPOn badira uholde-arrisku eremuan dauden hiru ak-

tuazio gune, non etxebizitza berriak eraikitzea aurreikusten den: Errota, Errotabide eta Zingirategi (garai bateko Ingemar). Noski, herritarren seguritatea bermatzearen alde, horietan etxebizitza berriak eraikitzeko aukerak bertan behera uztea eskatu dugu.

Lurzoruaren gehiegizko okupazioa saihestu behar dela HAPOn sarritan aipatzen den arren, hutsik dauden etxebizitzaren inguruko azterlanik ez da egin. Oro har, hiri eta herri gehienetan bezala, gurean ere asko dira hutsik dauden etxebizitzak. Etxebizitza hutsen Plana erredaktatzea, bere baitan diagnostikoa eta merkaturatzeko neurriak dituen, eta neurri hauek HAPOn jasotzea eskatu dugu.

Mugikortasunean oinezkoak babesteko, kaskoak oinezkoentzako izendatzeaz gain, herrigunean ibilgailuen abiadura 10 km-tara eta herri auzoak lotzen dituzten bideetan 30 km-tara mugatzea proposatzen dugu.

Orbeldiko presaren kasuan, nabarmena da, bi interes kontrajarri daudela: guztion onura

bermatzen duen ibaiaren natur kontserbazioa batetik, eta, aisialdirako azpiegitura bat eraikitzeko asmoa duen Piraguisimo Federazioaren interes pribatua bestetik. Zientzilarien iritzia, Europako parlamentua, Usurbilgo udalak sustatuta landutako Errioa Bizi! ekintza plana, GFAk landutako Gipuzkoako oztopoak iragazkortzeko plan gidaria, hauek guztiak diote erabilerarik gabe dauden ibaietako presa eta oztopoak kentzeak onura handia dakarrela, bai bioaniztasunaren ikuspegitik, zein, uholde arriskuak ezabatzeko duten abantailagatik. Gure herrian bertan, arrazoi horiek kontuan hartuta, Errotaberriko presa izan zena kendu zen, eta laster, Astea-suainzarrakoak ere kentzekoak dira. Ez zegozkigun espazioak okupatu genituen eta bueltan itzultzeko ordua heldu delako, ur bizien kanala bideratzeko Plan Berezia bertan behera utzi eta Orbeldiko presa eraisteko prozedura abiatzeko eskaria luzatu dugu beste alegazio honetan.

**Anerreka Ingurumen Elkartea**

# Yolanda Arrieta: “Sortzeko egunerokotasun horretan behar dugu laguntza”

Zarauzko Lizardi Saria, Yolanda Arrieta Malaxetxebarriaren “Mari Gonagorri eta hamazazpi berri” ipuina aurkeztu du egileak berriki, sortze lan honetako ilustratzaile Enrique Morente eta Usurbilgo udal ordezkariekin batera.

Hain zuzen, Udalak diruz lagundu du liburu hau, sortze lanetarako duen lerroaren baitan. “Udalarentzat pozgarria da gisa honetako proiektuen bidelagun izatea”, adierazi zuen aurkezpen ekitaldian, udal gobernu taldeko ordezkari Beñat Larrañagak. Ildo beretik gaineratu zuenez, “zalantzarik ez bagenuen ere, ekoizpenaren maila altuaren erakusgarri. Zorionak! Guretzako ohorea da Yolandaren sormen oparoaren bidelagun izatea, izan ere eskal kultura aberasten duten gisa honetako opariak ezinbestekoak dira”.

Jasotako dirulaguntza eskertu zuen lerrootan aipagai



Udalak diruz lagundu du ‘Mari Gonagorri eta hamazazpi berri’ liburu, sortze lanetarako duen lerroaren baitan.

## YOLANDA ARRIETA

**“Guri sortzea gustatzen zaigu eta sortzeko egunerokotasun horretan behar dugu laguntza”**

dugun liburuaren egileak. “Berrez, beste proiektu baterako eskatu nuen. Hura ezin izan zen egin eta gero eskatu nuen aldatzeko, beste proiektu honengatik”.

Proiektuka lan egiten dutela azaldu zuen Arrietak, eta urtean zehar egun zehatzetan baino egunerokoan behar dutela sorkuntza lanetarako laguntza. “Guri sortzea gustatzen zaigu eta sortzeko egunerokotasun horretan behar dugu laguntza. Beraz, gonbidapena usurbildarrei bezalaxe beste leku batzuetan ere horrelaxe jokatzeko”.

Beharrezkoa dute eta sor-

tzen segiko badute. “Beti ari baikara proiektuka, honetatik bizi gara asko eta asko, eta gauza asko eduki behar dira mar txan, etenik gabe batek huts egiten badu beste bati heltzeko. Geure kontura lan egiten ari garen neurrian, lan egiten hasterako gastu asko dauzkagu eta ez da erraza sortzen hastea, burua diruarekin beti bueltaka dagoenean. Orduan, iruditzen zait udaletxeetan eta apurka-apurka sortzen ari diren dirulaguntza horien bitartez lasaiago sortzeko aukera ematen diguzuela. Gero sariak datozela, hori ez da beti hala gertatzen, opari bat da. Sari horri esker egin dugu liburu hau eta lasaiago igaro da sortze prozesuaren ondorengo ekoiztea, liburu egite prozesua. Era berean, hurrengo urterako beste ipuin batzuk zirriborrazten hasteko modua ere ireki digu. Udaletxe guztiei gonbidapena sortzaileoi laguntzeko egunerokotasunean”.

## Sorkuntza sustatzeko bi laguntza lerro

Bi dira hain zuzen, Udalak kultur sorkuntza sustatzeko dituen bideak. Batetik, iaz plazaratzen hasi zen deialdia; sormenerako dirulaguntzak. Bi urteetako lanak babestu asmo zituena; 30.000 euroko partida bideratu zuten udal aurrekontuetatik. “Hamar eskaera izan genituen eta haietatik bederatziri eman zitzaizkien laguntza”, azaldu zuen Larrañagak. 2023ko udal aurrekontuetatik 15.000 euro bideratuko dituzte aurrean. Plazaratu duten deialdiaren baitan, “lau eskaera jaso ditugu”. Laster plazaratuko dute

ebazpena.

Horrekin batera, 2021ean udalerrri hau, eta Udala beraz, kide duen Udalbiltzak abian jarritako “Geuretik Sortuak” egitasmoa dago, euskarazko sorkuntza sustatu asmo duena. Gogoan izango duzue, estreinako edizio haren baitan, Itxaro Borda Baionako idazleak egonaldia egin zuen Usurbilen eta hortik, “Gauak Zuri Usurbilen” liburu sortu zuen. Bi herrikideek, lerrootan protagonista dugun Yolanda Arrietak eta Ugaitz Agirrek Euskal Herriko beste bi udalerrietan eginiko ego-

naldietan beste bi sortze lan bideratu zituzten. “Estekak” ipuina sortu zuen Arrietak Nafarroako Etxarri-Aranatzen eta Agirrek Arabako Artziniegan “Izaro izeneko printzesa eta krimen zoroangarriaren tesia”. Guztiak sortzaileek eginiko egonaldietako herrietan giro-tutako sortze lanak izan ziren.

Lehen edizio hartan 17.000 euroko ekarpena egin zuen Usurbilgo Udalak. 19.000 eurokoa egin du abian den bigarren “Geuretik Sortuak” egitasmorako. Oraingoan, apirilean gure artean izango da Iñaki Martiarena “Mattin”


komikigilea. Asteotan izango da Usurbilen, “bertako egunerokotasuna ezagutu eta bere ekoizpenerako informazioa biltzen”.

Bi laguntza lerro hauek, kultur sorkuntza sustatzea dute xede nagusia. “Usurbil herri aberatsa da kultur sorkuntzari dagokionez, baina konturatu ginen, due-la gutxira arte, kultur ekitaldien antolaketa zela batipat Udalak dirulaguntzen bidez bultzatzen zuena. Beraz, kultur sorkuntza bera ere bultzatzea erabaki genuen diruz lagunduta”.

## “Umeekin egoteko, bizitzeko aldarrikapena”

**M**ari Gonagorri eta hamazazpi berri ipuina aurkeztu zieten heldabideei eta herriko ikastetxeetako gaztetxoei oporren aurretik bere egile Yolanda Arrieta Malaxetxebarriak eta Enrique Morentek.

“Mari Gonagorriren irudia-ekin urte asko ibili naiz forma eman nahian”, zioen egileak hitzorduotan. “Mari Gonagorriren berri etxean zuzenean izan dut”, azaldu zuen. Bere esanetan, euskal kulturak eta tradizioak hainbat eduki eta pertsonaia ditu “gaur egun eguneratu daitezkeenak”. Garrantzizkotzat jotzen du hain zuzen, horiek “mende honetara ekartzea, gaur egungo kultura garaikidea eraikitzeko”. Egun, “era askotako jendea, familiak, ohiturak, pentsamenduak eta ideologiak daude, eta zergatik ez, liburu bat Mari Gonagorri delarik erortzen diren esne hortzen truke opariak



Enrique Morente eta Yolanda Arrieta Malaxetxebarria, ‘Mari Gonagorri eta hamazazpi berri’ ipuina aurkezten.

### YOLANDA ARRIETA

**“Euskal kulturak eta tradizioak hainbat eduki eta pertsonaia ditu gaur egun eguneratu daitezkeenak”**

ekartzeko”. Egileak argitu nahi duenez, “saguari kontrapuntua

egitea ez da erraza” eta ez da hura ordezkatzeko bere asmoa.

Bere lan berrian, “opariaren inguruko beste hausnarketa bat sartu nahi nuen, gaur egun dena baita erostea”. Errosteke ordea dirua, eta dirua eskuratzeko zerbait egin beharra dagoela adierazita, hasteko, “zerbait egiteko ja-

kin egin beharko duzu zer nahi dugun”. Haurrei gutxitan egiten zaien galdera Arrieta-aren esanetan, baina helduok hori da galdetu behar dieguna. Eskuartean zuen liburua bidelagun ezin aproposagoa da horretarako, “haurrekin irakurtzeko, poliki-poliki, atalez atal”.

## “Horrela zahartu nahi dut, haurtzaroa berreskuratuz”

Aurkezpenetako bat Sutegin egin zuen Udarregi ikastolako eta Aginaga zein Zubietako eskoletako haurren aurrean. Arrietak bere sortze lan berria aurkeztu artean, liburua ilustratu duen Enrique Morente, kontakizunari lotutako marrazkiak sortzen aritu ziren. Hiru guztira, ikastetxe bakoitzarentzat bana. Laugarrena segidan sortu zuen Potxoenean, Sutegi udal liburutegiarentzat.

Hamazazpi berriez, hamazazpi atalez osatua dago. “Guztiak jarraian irakurri gero, liburuaren muina biltzen duen olerki bat osatzen da”, egilearen esanetan. Haurrek bakarrik irakur dezaketen arren, helduekin partekatze gonbita egin du. “Heldu baten

figura niretzat oso garrantzizua da une honetan. Etenik gabeko informazioa sartzan ari zaigu eta ez dugu tarterik hartzen informazio horrek umearengan zer eragiten duen jakiteko”. Horregatik, “egunean zatitxo bat” irakurtzera animatzen du, “poliki-poliki handien konplizitatearekin irakurtzeko modukoa da eta irakurtzen goazen bitartean, bizitzari gure nahiei buruz hitz egiteko tarte hartzeko aitzakia. Umeekin egoteko, bizitzeko aldarrikapena”.

Baita haurtzarolari dagokion balioa ematearena, “horregatik idazten dut, ez dudalako ahaztu nahi hori, eta horrela zahartu nahi dut, haurtzaroa berreskuratuz”.

Testu artean, gainera, iru-

diak daude, “arnasa hartzeko”. Hitzaren artera ekarri du irudia Enrique Morente ilustratzaileak. “Nik azaltzen diot berari zer nahi dudun, berak berehala ulertzen dit eta beti nik esandakoa dago, gehi zerbait gehiago”. Aspaldiko ezagunak batu ditu berriz lerrootan protagonista dugun sortze lanak. “Berarekin lan egitea oso erraza da. Zergatik aukeratu nuen bera? Irudi edo marrazki mota hauek oso ondo doazelako”.

### Deialdiak

**Udaberria liburutegian:**

**Apirilak 25, asteartea**

■ 18:00 Irakurketa solasaldia LH4 eta LH5eko gaztetxoe-kin. Yolanda Arrietaren “Zazpi pertsonaia istorio bila” liburua

aztertuko dute egilearekin berarekin.

**Maiatzak 8, astelehena**

■ 18:30 “Basa” liburua mintzagai izango duen literatura solasaldia Sutegi udal liburutegian, bere egile Miren Amurizarekin.

**Maiatzak 10, asteazkena**

■ 18:00 Miren Agur Meaberen “Bihotzak Dun-Dun” liburua aztergai izango duen literatura solasaldia LH6ko gaztetxoe-kin, Yolanda Arrietak bideratua.

Oharra: liburuon aleak Sutegi udal liburutegian eskuragarri. Antolatzailea: Sutegi udal liburutegia.

# “Udalak eta herritarrek eskutik egindako lanaren aitortza garrantzitsua da”

Usurbilgo Udalak eskuartearen du lau izarreko Zero Zabor Ziurtagiria. Hilabete hasieran jaso zuen bere sustatzaileen eskutik, gai honi buruz Udalak berak eta Hobeki hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki erakundeen elkarteak, Zero Waste Europe mugimenduari batera Potxoenean antolatutako jardunaldian.

Mugimendua bera sortu zen Italiako Cappanorirekin batera Europar hainbeste izar dundokumentua eskuratzen aitzindaria da herri hau. Udalerri honek hondakinen arloan azken hamalau urteotan egindako ibilbidea goraiatzatzen du. “Udalak eta herritarrek eskutik egindako lanaren aitortza garrantzitsua da. Balioa ematen dio egindako lanari”, adierazi zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrieta Mesak ziurtagiri honi buruz, jardunaldi haren hasieran.

Aditu gonbidatuen eskutik, ziurtagiri honen nondik norakoak ezagutarazi eta komertzio zein enpresek ere eskura dezaketela nabarmendu zuten. Hasteko, sarrera moduan,



Lau izarreko Zero Zabor ziurtagiria jaso du Usurbilgo Udalak.

## USURBILGO UDALA

**Jasotako ziurtagiriak egindako lana aitortzeaz gain, hasitako bide horretan hobetzen eta “sakontzen segitzeko aukera” eskaintzen du**

alkateak berak ziurtagiri hau eskuratzea ahalbidetu duen ibilbideko mugari garrantzitsuenen errepasoa eta balantzea egin zuen. Gogoan izan, 2009. urteko martxoaren 16an ohitura aldaketa txiki batek, gaikako bilketaren ehuneko iraui zuen; hilabete gutxiren buruan, %30etik beherako bir-

ziklatze tasatik %80tik gorakoa izatera igaro zen udalerrri hau. Hortik aurrera, pixkanaka beste hainbat urrats ematen joan da Usurbil; 568 familia aritu eta urteko 151 tona konpost sortzea ekarri duten auto nahiz autokonpostatze esperientziak edota baserriko konposta herrian bertan kudeatzeko iaztik abian duten egitasmoa abiaraztea; hondakinen industriaren bilketa; errefusari aplikaturiko sortzez besteko ordainketa eta hondakin zati hau astero biltzetik bi astean behin jasotzera igarotzea; Kilometroak jaialdian sustatu zen hondakinen kudeaketa eredu, EAE-

ko Hondakinen Prebentzio Astearen baitan proiektu finalista izan zena; edota Usurbil 0.0 hondakinen kudeaketa eta prebentzio programa martxan jartzea.

Bide luze eta emankor honek ekarri du, egun, %87 pasatxoko gaikako bilketa izatea edota atez ateko bilketa sistema ezarri aurretik 1.921 tona isurtzea zabortegietara eta egun 391 tona. Alor honetan aitzindari izaten segitzen duela Usurbilek zioen alkateak. Jasotako ziurtagiriak egindako lana aitortzeaz gain, hasitako bide horretan hobetzen eta “sakontzen segitzeko aukera” eskaintzen du.

## Hobetzekoak

Lau izarreko zero zabor udalerrri izatera heltzeko orain arteko bidea emankorra izan den arren, “Udalak badu zer ikasi eta hobetu” hondakinen bilketaren kalitatean eta prebentzioan, edota klima aldaketa eta garapen jasangarriari dagokionean esaterako, eta horretan guztian lerrootan mintzagai dugun ziurtagiria lagungarria izango delakoan dira.

Etorkizunera begirako zenbait erronka mahaigaineratu zituen Ibon Goikoetxea udal teknikariak. Batetik, “fiskalate berdea” aldarrikatu zuen, egun “ondo birziklatzea oso garesti” kostatzen den Gipuzkoarako. Erreusaren %60a kale garbiketarik jasotzen denez, xurgatzeaz gain, hondakinak gaika biltzeko gai den “barredora” izatea ere zer lagungarria litzatekeen ere adierazi zuen. Egundak, errefusarekin nahastend hondakin sanitarioengan ere arreta jarri zuen. Azkenik, biohondakina herrian bertan kudeatzeko Usurbilek abian duen bidean sakontzea ere komenigarritzat jo zuen.

## Usurbil 0.0 programarekin bat

Udalerrri honek jasotako Zero Zabor Ziurtagiria eskuratzeko prestaketa lanen berri eman zuen jardunaldian, bestalde, Usurbilgo Udaleko ingurumen teknikari Ibon Goikoetxeak. Iaz hasi zuten lanketa prozesua, udal barneko hausnarketarekin ziurtagiri honekin bat egin ote zezaketel deliberatuzko. Baietz ondorioztatu zuten. “Usurbil 0.0 programarekin bat egiten du bete-betean”, adierazi zuen udal teknikariak.

Aurrera jotzea erabaki zuten, eta gogoan izango duzuen moduan, otsaileko osoko bilkuran ziurtagiri honi atxikitzea erabaki zuten. Auditoretza bat egin diete Rezero eta Amigos de la Tierra erakundeek eta datozen hiru urteotarako lau izarreko ziurtagiria jaso du herri honek. Ziurtagiriak Usurbil “Europar eta mundu mailan” kokatu duela gogorarazi zuen Goikoetxeak.

Ziurtagiriko lau izarrek hiru

arlotan egindako lanagatik jasotako puntuazio kopuru batek zehaztu du: oinarriak eta prestaketa lanak, ezarpenak eta inpaktuak eta komunikazio lanak. Eta horren guztien baitan, besteak beste, kontuan hartu dute hondakin zati guztien karakterizazioa nola egiten duen herri honek, zer plangintza duen, zer baliabide dituen, gaikako bilketan nahiz prebentzioan eginitako ahalegina...



# Mission Zero Academy: “Harro sentitu zaitezte, onenekin ari zarete lehian”

Herri hau zero zabor norabidean egiten ari den bideetatik zoriondu eta harro sentiarazteko deia egin zuen udalerrri honek jaso berri duen ziurtagiriaren harira, bere sustatzaile Mission Zero Academyko ordezkariak. Gai honi buruz Potxoenean egindako jardunaldian izan ziren.

“Harro senti zaitezte, onenekin ari zarete lehian”, hala adierazi zion herri honi Zero Waste Europe mugimendutik bultzatutako Mission Zero Academyko estatu espainiarreko, edo bestela esanda, estatu horretako zero zabor ziurtagiriaren koordinatzaile Daisee Aguilera. Udalerrri honek egindako lanaren aitortza da bere esanetan, berriki Usurbilek jaso duen lau izarreko izendapena.

## Udalerrriak ahaldundu

Bide horretara erakunde gehiago batzeko ahaleginean dihardutela gaineratu zuen. “Udalerrriak ahaldundu nahi ditugu”. Mission Zero Academy-k hain zuzen, zero zabor estrategietan eta ekonomia zirkularraren ereduak inplementatzeko ahalduntzea eta formazioa eskaintzen ditu.



Sariak Europa mailako sare zabalago baten kide izateko aukera eskaintzen du.

## DAISEE AGUILERA, MISSION ZERO ACADEMY

**“Zorionak eta lanean segi.  
Eredu zarete eta  
eskertzekoa da”**

Ildo horretan, ziurtagiri honek udalerriei ematen dizkien onurak nabarmendu zituen Aguilera. Batetik, garrantzitsutzat jo zuen ingurumenaren eta osasunaren zaintza. Baita udalerrri bat zero zabor norabide horretan eginiko lana ikusgarri egitea nazioartean,

udalerrriaren irudi baikorraren proiektzioa, arlo honetan dauden bestelako esperientzien ezagutza izatea eta norberarena gainerakoekin partekatu ahal izatea, edota udalerrriaren errentagarritasunean eragitea.

Gainera, Europa mailako sare zabalago baten kide izateko aukera eskaintzen du. Egun, 28 herrialdeetako 460 udalerrirekin lankidetzan ari dira. Hortxe txertatu da orain Usurbil, punta-puntako udalerrrien sailkapen buruan. Zero zabor mugimendua sortu zen Italiako Capanoriren pare da

lau izarrekin (bost izar eskura daitezke gehienez, ziurtagiri honekin). “Zorionak eta lanean segitzera animatu. Eredu zarete eta eskertzekoa da”, adierazi zuen Aguilera Potxoenean.

Ziurtagiria lau pauso errazetan eskura daitekeela azaldu zuen: hasteko, udalerrriak ziurtagiri honen sustatzaileekin hartuemanetan jarri behar du, gero hautagaitza aurkeztu eta ekintza plana prestatu. Azkenik, bi urtez udalerrriak auditoriarako beharrezkoak diren datuak bildu behar izaten ditu eta ziurtagiria jasotzen da.

## Entitateak, ezinbesteko bidelagunak

Erakundeak edo kasu honetan, administrazio publikoa soilik ez, enpresei ere ziurtagiri hau eskuratzeko gonbita egin zieten Potxoeneko jardunaldian. Administrazio publikoarentzat soilik ez, tamaina ezberdinetako entitateek, lantokiek, eta konkretuki, herri merkataritza eta ostalaritza sektoreak ziurtagiri hau eskuratzeko lanean dihardute programa horren

sustatzaileek. Horri buruzko xehetasunak eskaini zituen, hitzordura gonbidatu duten Mission Zero Academyko zuzendari Kaisa Karjalainek. “Enpresek ere dagokien zatia egin behar dute. Haiiek gabe” zioenez, ezinezkoa litzateke Usurbilen eskuratu diren emaitza onak izatea.

Haietaz ziurtagiri honen sustatzaileek, adituen lagun-

tza eskaintzen dute: formazioa, komunikazio materiala sortzea, zero zabor estrategia definitu edo plana eguneratzea; ekintza garrantzitsuenak, praktika onak, irtenbideak edota interes taldeak identifikatzea... Udalari emandako ziurtagiriko irizpide orokorrez gain, sektore honi begirako irizpide zehatzagoak ere finkatuak dituzte.

Beraz, ezin aukera hobetzat

jo zuten enpresek ere ziurtagiri hau eskuratzeko, “oso aukera ona da”, entitateok zero zabor norabide horretan eginiko lana aitortu eta egiaztatzeko. “Haietaz oso baliagarria izan daiteke ziurtagiria”, nabarmendu zuten. Usurbilgo enpresa, ostalari eta merkatariazi ziurtagiria eskuratzera animatu zituzten.

## Aginagako historian nabigatzen

Sorterrigo historiaz blaitu ziren Aginagako eskolakoak opor hauen aurretik. Uraren inguruko proiektua landu dute joan den hiruhilekoan eta Oriaren iraganean barneratu ziren. Erriotan bazuten zer arakatu. Punta-puntako ontziolen lekukoa izan baitzen ibaia, aurreko mendeetan. Gai honi buruzko lanketa aurkeztu zieten martxoaren 31n ikasleek, eskola kide dituztenei, etxekoei, lagunei...

QR kodeak jarri dituzte, garai batean ontziolen lekuko izan zen errioko puntu ezberdinetan eta modu horretan ontziolen mapa osatu dute: Urdaian, Zakoetan, Mapilen eta Orioko Mutiozabalen. Kodeon bidez, ikasleek ontziola hauei buruzko informaziora hel gaitzek; idatzizkora nahiz argibideekin sortu duten audioetara. Erriok eta Aginagak garai batean ontzigintzaren sektorean izandako garrantzia



QR kodeak jarri dituzte, garai batean ontziolen lekuko izan zen errioko puntu ezberdinetan eta modu horretan ontziolen mapa osatu dute.

### AGINAGAKO IKASLEAK

**“Ontzigintzari buruzko lanketa aurkeztu zieten martxoaren 31n ikasleek, eskola kide dituztenei, etxekoei, lagunei...”**

nabarmena agerian utzi digute.

### Udarregikoen babesa

**“matrikulazioan bidegabekeria jasan duten guztiei”**

Udarregi ikastolako langileek babesa adierazi zieten opo-

rren aurretik “matrikulazioan bidegabekeria bizi izan duten Euskal Herriko familia guztiei” eta horrekin batera, “ikastetxe guztientzako baldintza berak” ezartzea eskatu zioten Hezkuntza Sailari. Segregazioari aurre egiteko tarte horretan ezarritako irizpide berriak tarteko, plazarik gabe geratu dira zenbait ikastetxeetako bi urteko haurren hainbat familia eta bizi duten egoera salatzen mobilizatu ziren martxoan zehar zenbait tokitan.

## 9.000 eskaeratik gora jaso ditu Errigorak

“Mila esker eta zorionak! #ESKUTIKeskura kanpainarekin bat egin dugun guztioi! Mila esker, bihotzez, Nafarroa hegoalde eta erdialdeko uztari 9.000tik gora sukaldeetako atea zabaltzeagatik. Eta, era berean, zorionak, uzta jasotzearekin ere egingo baitugu: kontsumitzaileen partetik jasotako babes izugarria ekoizpenaren eremuan pausu berriak emateko akuilu izango da”. Mezu hauxe zabaldu diete Errigoratik, udaberriko kanpainan 9.000 eskaera baino gehiago jaso ostean. Hazkuntza betean den egitasmoa dela azpimarratu du Errigorak. “Urtetik urtera handiago da Errigoraren komunitatearen dirdira. Baina



Urtetik urtera “handiago da Errigoraren komunitatearen dirdira”.

ez gero eta gehiago garelako soilik, baizik eta urtetik urtera kitzikagarriagoa delako gure ekoizleen adorea, gure boluntarioen kemena eta gure kontsumitzaileen konpromisoa.

Biba gu!”. Adi banaketari. Produktuok oraingoan Udarregi ikastolan jaso beharko dituzue maiatzaren 12an (16:00-19:00 artean) eta 13an (11:00-13:00 artean).

## Familiako gatazkei buruzko solasaldia

“Familiako gatazkak eta estresa kudeatzeko pilulak” izeneko hitzaldia antolatu du Hitz Aho Udarregi ikastolako guraso elkarteak apirilaren 27an 17:30-19:00 artean Potxoenean.

Nerea Mendizabalek gidatuko duen saiorako ize-na doan eman ahalko da aurrez, [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman. Plaza kopuru mugatua izango dela ohar-tarazi du antolakuntzak. “Presak, ordutegiak, betebeharrak, espektatibak... gure onetik ateratzeko baldintzetan murgilduta bizi gara. Saihesgarriak direnei aurre hartu eta saihestezinak direnak kudeatzeko pilulek, egunerokotasuna eramateko arintasuna eskainiko digute. Hitzaldiaren helburua gatazka eta estres maila altua izatera eramaten gaituzten elementuak ezagutzeko eta egunerokotasunean gatazkak gutxitzea eta daude-nak kudeatzeko eguneroko bizitzako adibideetan oinarritutako teoria aurkeztu ondoren, hausnarketarako eta galderak egiteko aukera zabalduko da”.

## CAF-Elhuyar sariak, ‘Begiratu urrunera’ lelopean

Usurbilen ospatuko da sariketa, apirilaren 26an 18:00etan Sutegin. “Dibulgazio-artikuluak, kazetaritza-lanak eta sorkuntza-beka. Gehi Neiker saria”. Kategoria hauetako guztietako lanak nabarmenduko dituzte. “Zientzia eta teknologiaren arloko gaiak eta ikerketak euskaraz gizarteratzeko lanak aitortzea eta bultzatzea du helburu CAF-Elhuyar sariketak.

# Arantzazuraino oinez



63 kilometroko bidea osatu zuten Usurbildik Arantzazuraino.

Oinez berritu zuten, lau hamarkada inguruko ohitura. "Ostegun Santu" egunez, api-

rilaren 6an alegia, 63 kilometroko bidea osatu zuten tipi-ta-pa Usurbildik Arantzazuraino,

udaberri giro betea lagun zutela. Haiek helarazitako ondoko argazkian dituzue.

# Poza eta festarako gogoia, Iruñeko Peña Alegriakoen eskutik



'Igadea' txarangakoekin batera, parranda giroa hedatu zuten euripean.

Apirilaren lehenean, bigarren urtez segidan, Usurbilen bisi-tan izan genituen Iruñeko Peña

Alegriako ehunetik gora kide. Igadea txarangakoekin batera, parranda giroa hedatu zuten

euripean izan zen herri hau, bertako sagardotegietako batera egin zuten egunpasaren baitan.



## Haur sahararrak etxean hartzeko programa martxan

Haurrak basamortuko udako 50 gradutik gorako tenperaturatik edo are ekaitzetatik urruntzea, elikadura orekarekin haien osasuna hobetzea, oinarrizko osasun azterketak egiteko, kultura eta hizkuntza berriak ezagutu, bizi duten egoeraren aurrean euskal herritarrok sentsibilizatu edota bi herrion arteko hartuemana sustatzeko.

Helburuon bueltan antolatzen dute ibilbide luzea duen Oporrak Bakean programa, 8 urteko haur saharar errefuxiatuak udan etxean hartzea ahalbidetzen duen elkartasun egitasmoa.

Aurtengo edizioa eta antolaketa lanak abiarazi dituzte, 'Uda bateko beskarkada' aldarripean. Interesdunek apirilaren 25era arteko epea dute, bideotatik izen-emateko: 696 014 786 / oporrakbakean@gmail.com

### "Eman izena programan"

Ia bost hamarkada igaro dira "Mendebaldeko Sahara Marokok okupatu zuenetik, Espainiako Estatuaren oniritziarekin. Ordutik hona, Herri Sahararra behartua izan da Tindufeko saharar errefuxiatu kanpamentuetan bizirautea, edota haien lurraldetik urrun emigratzera". Testuinguru ezin latzago honetan ekimen honekin bat egitera gonbidatzen dute. "Oporrak Bakean egi bihurtzeko harreara familia berriak behar dira. Zuk ere proiektuaren parte izan nahi baduzu eta familiariko kide berri batekin uda ahaztezin bat pasatu, eman izena programan!".

# Emakumeentzako ahalduntze eskolak, osasun-iturri

Emakumeei zuzendutako ahalduntze ikastaro gehiago antolatu ditu asteotarako Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak. Dozena bat urteko ibilbide arrakastatsua egin dute tailerrok Usurbilen. Saio hauen bideratzaileetako batek, Pepa Bojó Ballester psikoterapeutak, eskola hauek dituzten onurei buruzko azterlana argitaratu du. Txostena osorik irakur dezakezue, gipuzkoa.eus atarian. Lerrootan elkarrizketatu du NOAUA!k.

## NOAUA! Nolatan bururatu ziztaizun azterketa hau egitea?

**Pepa Bojó Ballester:** Ahalduntze eremuetan zer gertatzen den jakiteko gogoia nuen. Hori ez du inork ezagutzen, bertan gaudenok izan ezik. Aldaketak ikusten nindoan, eta udal hainbategi inbertsio garrantzitsua egin duenez, kontatu behar zela uste nuen.

## Erregistratua geratzeko.

Bai, baita niretzat ere. Nabarmendu nahiko nuke, bereziki, Usurbil bultzada handia izan zela lan honetan. Lehen egunetik bertako teknikariak animatu ninduen azterlan hau egitera, bestela ez nuen egingo.

## Bizipenen bilketa gisa definitu daiteke zure azterlana?

Bai, zortzi udalerrietan 2018-19 artean bildutako bizipenak: Usurbil, Zarautz, Azpeitia, Arrasate, Oñati, Trintxerpe, Tolosa eta Urnietakoak. Ahalduntze ikastaroekin denbora gehien daramadan herriok aukeratu nituen. Emakume hasiberriak eta denbora zeramatenen saioak aztertu nituen.

## Hasteko, zer da zuretzat ahalduntzea?

Pozten nau galdera hau egitea, edukiz husten ari baita.



Pepa Bojó Ballester psikoterapeutak (argazkian, eskubikoa) ahalduntze eskolek dituzten onurei buruzko azterlana argitaratu du.

### PEPA BOJO

**“Emakume asko dago depresio edo antsietate arazoekin, autoestima onik gabe. Hortik hasi behar da, osasunean erreparatu beharra dago”**

Ahalduntzea eraldaketa sozialerako kontzeptua da erabat, kontzeptu politikoa, ez psikologikoa. Herrien askapenerako edota pedagogian erabiltzen hasi ziren. Sektore edo herri zapalduak zapalkuntzaz kontzientzia hartu eta gizartea eraldatzeko erabiltzen da. Desberdinkeria eta injustizia betikotzen duten praktikak eraldatzera bideratua dago. Halere, egun, norbait gaitzeko, eskubideez kontzientziatu eta hezteko soilik erabiltzen

ari da ahalduntzea. Aldiz, hezi nezake norbait baina ez kontzientziatu zein diren desberdinkeriak, zergatik gertatzen diren eta zer eraldatu beharko litzatekeen. Kasuotan, beraz, ez gara benetan ahalduntzen ari. Ahalduntzeko hori guztia egin behar da baina batez ere desberdinkeria jatorriaz eta feminismitik aldatu beharrekoari buruzko azterketarako gako teoriko eta sozialak eman behar dira, aldarrikatu dezaten, aldaketarako eragile izateko, emakumeok geure bizitzetan autonomia eta aukeratzeko gaitasun gehiago izateko, menpekotasun harremanak aldatzeko, eskubide sozialak konkistatzeko. Ahalduntzea eremu pertsonal, erlazional eta kolektibora zuzendua dago.

## Hau guztia nola azaleratzen da

## ahalduntze talde batean?

Benetako aldaketa prozesuak izan nahi badira, prozesu luzeak izaten dira eta emakumeok denbora askoan parte hartzen dute taldeotan. Berdintasunari lotuagoak izan diren emakume gazteek berrikuspenerako tailer zehatzagoetan parte hartzen dute tarteka.

## Zergatik parte hartzen dute ahalduntze saioetan?

Galdetzen diezunean osasuna da parte hartzeko arrazoi nagusia (%35en kasuan), bigarrena %24arentzat beste emakumeekin egotea, %20arentzat feminismoan sakontzeko baita. Emakume asko dago depresio edo antsietate arazoekin, autoestima onik gabe. Hortik hasi behar da, osasunean erreparatu beharra dago, horregatik izaten da prozesu luzea.

# “Ni-a ez da egon sekula erdigunean, lehenbizi besteak”

**NOAUA! Nola eragiten da aldaketa?**

**Pepa Bojó Ballester:** Tailer guztietan nabarmentzen duguna da tratatu onen harreman eredu sortu behar dugula, berdintasunezkoa, botere harremanen aurkakoa. Desberdinak izan eta pentsatu arren, garen moduan lasai sentitzeko espazio seguru bat, elkarri entzuteko, ez epaitzeko, aitortzeko. Espazio propioa izatea haratago doa ordea, zure bizitzan pentsatzea zer egin nahi dudan nik neure denborarekin. Hau oso eraldatzailea da, lehenbizi zugar pentsatzen hasi behar baituzu, eta zu erdigunean jarri. Emakume askok hori ez dute sekula egin. Ni-a ez da egon sekula erdigunean, lehenbizi besteak. Lehen aldaketa, zure burua lehenetsi, erdigunean jarri eta zer egin nahi duzun galdetzea litzateke. Egiten hasten zarenean, horrek aldaketak eragingo ditu zugar eta baita inguruko harremanetan, lehen hartzen ez zenuen denbora hartzen ari zara. Zereginak adostu eta mugak jarri beharko dituzu, zure espazio eta denborak errespetatuak izan daitezten. Modu horretan, harremanak eraldatzen eta ahalduntzen hasten gara. Men-



Pepa Bojók 'Grupos de empoderamiento de Gipuzkoa' liburua plazaratu du eta, besteak beste, Usurbilgo esperientzia jaso du.

## PEPA BOJO

**“Helburua ni nire bizitzarekin ahalduntzea da, eta hortik harremanak eraldatzea, berdintasunezkoak izan daitezten. Eta hurrengo urratsa, errealitatean gertatzen denaren jakitun izatea, klabe feministatik aztertzea”**

dekotasun harremanetatik irten eta posizio bereko harremanak sustatzen da, ez bakarrik etxean bikotearekin edo familian, baita lagunartean ere.

**Tailerren bidez, urteotan zer**

**lotura eraiki duzu herri honekin?**

Harreman oso estua dut. Usurbilen 2011tik nabil. Horrez gain, zerbait berezia du Usurbilek, agian oso gertukoa delako. Usurbil espazio familiar bat eraikitzen den leku kutuna da. Ni etxean bezala sentitzen naiz. Askok ikasten dut emakumeekin. Usurbilgoekin ikusten joan naizena da, adin askotako emakumeek parte hartu dutela, jatorri sozial eta kultural oso desberdinetakoak. Haietako batzuk zioten espazio honetan ez bazen ez zirela topatuko. Orduan, ederra da ikustea nola sortu den haien arteko adiskidetasuna. Kalitate eta estimu handiko konplizitate

harremana eraiki dute, niretzat hori zoragarria da. Herri txiki bat da, emakume konprometitua dira. Urte asko daramagu, taldeak osatzen segitzen joan dira, talde jendetsuak gainera, 20 lagunekoak. Prozesu pertsonal oso garrantzitsua egin dute.

**Hasten denak segi egiten omen du.**

Bai, emakume batzuk gertatzen zaienari azalpena aurkitzen diete. Osasun egoerak, depresioak batzuetan lotura estua dute genero rolekin. Nik ez badut denbora niretzat, denbora besteak zaintzen ematen badut, ez badut nigan pentsatzen eta pentsatzen dudana isiltzen badut, gaixotzen noa. Emakumeei gertatzen zaiena ulertzea oso garrantzitsua da, eta gainera, errealitate hori aldatzeko tresnak jasotzen bazoaz, are garrantzitsuagoa da.

Azalpenak ulertu eta herramintak ditugunean, eta gero espazio bat haiek asko baloratzen dutena, emakumeen arteko harreman desberdinekin, epaiketarik gabekoa, elkar zaintzekoa, tratatu onekoa, onarpena dagoena... horrek guztiak eraldatzen lagundu eta esperientzia hau errepikatzen laguntzen du.

## “Autoestimian hobekuntza nabarmentzen dute”

**NOAUA! Arrazoi ezberdinengatik ahalduntze saioetara heldu ezin duten emakume asko dago. Kezka eragiten dizu?**

**Pepa Bojó Ballester:** Nire azterlaneko ondorioetako bat da. Oso garrantzitsua da herriko zerbitzu komunitario guztiak zer eta zertarako egiten den jakitea. Saiakera hau Usurbilen egin genuen anbulatorioko langileekin. Oso interesgarria izan zen. Bestalde, ahokoa ere oso ondo funtzionatzen du. Halere, emakume hainbatengana ez dakigu nola

heldu.

**Emakumeen Etxearen irekiera ahalduntze prozesuan aurrerapauso garrantzitsua dirudi.**

Ahalduntze kolektiboaren garapen garrantzitsua litzateke, fisikoki espazio hau existitzen dela ikustea.

**Zure azalpenak entzunez, epe luzera eraldaketa hori posible da gertatzea.**

Duela 30 urte hasi nintzenean baino depresio gutxiago dute egun, tailerretara datozen

adin tarte bereko (50-60 urteko) emakumeek. Emakumeen bizi baldintzak aldatu ahala, berdinzaleagoak direnean, osasuna ere hobetzen da. Badirudi hori gertatzen ari dela. Sintomak hobetzen dira halere, kasu batzuetan medikazioa murrizten da epe luzera. Autoestimian hobekuntza nabarmentzen dute, askoz hobeto sentitzen da %40a. Haien bizitzaz erabakiak hartzen dituzte, haien burua lehenesten dute, harremanetan espazio propioa dute. Badakite mu-

gak jartzen eta hobeto, beste modu batera komunikatzen dira. Beraz bai, aldaketak daude haien bizitzetan, osasunean eta harremanetan.

**Hortxe ahalduntze tailer hauen beharra.**

Bai, azkenean ez da bakarrik norberarentzako onura. Harremanak aldatzen doaz. Komunitatea ere bai. Emakume gehiago geroz eta kontzienteagoak izan, beste gauza batzuk aportatzen ditugu.

# “Neure burua maitatzen pila bat ikasi dut”

Ikastaro berriak abiaraziko dituzten egunotan, ahal-duntze eskolen onurak agerian utzi dizkiguten Usurbilgo bi emakume elkarrizketatu ditu NOAUA!k; Eneida Lasa eta Josune Estella.

## Zerk bultzatuta animatu zineten ahal-duntze eskoletara?

**Eneida Lasa:** NOAUA!n irakurri nuen debalde zela emakumeentzako eta probatzer animatu nintzen.

**Josune Estella:** Ahizpa hasi zen eta animatu ninduen. Grina banuen mundu horrekin, zerbait irakurria nuen eta gainera emakumeentzat zerbait berria zen.

## Nola oroitzen duzue lehen talde dinamika hura?

**E. L.:** Lehenengoan autoestima lantzen zen. Emakume desberdinak ginen, adin desberdinetako emakume asko, zoragarria; adinekoak zeuden, kanpotik etorritakoak. Asko ikasi genuen haiekin.

**J. E.:** Hasieran bi ikastaro batera antolatu ziren, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Euskarazkoa zoritxarrez ez zen gauzatu eta denok Pepa Bojoren adimen emozionalari buruzko ikastarora pasa ginen. Hasieran ez zen erraza izan, ez gaude talde dinamiketara ohitua. Beti ariketa batzuk egi-



Josune Estellak eta Eneida Lasak aurreko ahal-duntze ikastaroetan parte hartu izan dute.

### JOSUNE ESTELLA

**“Zer den ahal-duntzea? Geure gaitasunetan sinestea. Gai naiz nahi dudana egiteko eta hori egitea baimentzen naiz, nahi dudanean, zergatik ez?”**

ten genituen saioa hasi baino lehen. Horrekin batera, Pepak zioen, bertan esandakoa bertan geratuko zela, talde bat gizona. Konfiantza horrekin hasi ginen denok biluzten. Bat hasi zen kontatzen, bapatean zuk aurkitzen duzu zure bizitzan halako bizipenak izan dituzula, hasten zara identifikatzen... Adineko emakumeek zer bizi izan zuten entzutea oso bortitza izan zen. Autoestima fal-

ta, nola joango naiz bakarrik edonora... Hasieran aitaren baimena behar zuten eta gero bikotearena.

## Noiz eta nola azaleratzen doa ahal-duntze saioetan bideratzen den eraldaketa?

**J. E.:** Adibidez, emakume batek adierazi zuenean bakarrik atara zela lehen aldiz paseatzera. Hasieran, itzultzekotan zegoela baina bakarrik joan naiz paseatzera zioenean.

**E. L.:** Ahal-duntzea zer zen entzuten eta jakiten hasi ginen.

## Zer esan nahi du zuentzat ahal-duntzeak?

**E. L.:** Labur esanda, libre izatea.

**J. E.:** Geure gaitasunetan sinestea. Gai naiz nahi dudana egiteko eta hori egitea bai-

mentzen naiz, nahi dudanean, zergatik ez?

## Konfiantza aipatu duzue. Bideratzailearen, kasu honetan Pepa Bojoren egitekoak zer eragin du taldean?

**J. E.:** Konfiantza, jakinduria, nola tratatzen dituen gaiak, nola transmititzen dituen, eta azkenean zer konfiantza ematen dizun, sortzen duen giroa azkenean Pepak sortzen du. Ez bakarrik Usurbilen, beste udalerrietan ere indar hori transmititu duela ikusi da.

**E. L.:** Behin goitizena jartzeko joko bat egin genuen. “Izar polarra” jarri nion, gure gida zen, oso argitsua. Bere ahotsa magikoa da.

## Zein da zuen ustez, herri honetan ikastaro hauek izaten duten arrakastaren gakoa?

**J. E.:** Guk beste emakumeei gomendatzeak eragin handia izan du. Urteak pasa ondoren emakume batzuk etorri izan zaizkit zer lagungarria izan zaien adieraztera. Gure arteko sarea sortzen joan da hala. Hau gehiago bultzatu behar da. Emakume askori medikuak esaten badie hau antolatua dago eta hau oso ondo etorriko zaizu, agian pilula hori ez duzu hartuko etorkizunean. Hor lanketa bat egin behar da.

# “Ahal-duntze eskolan konfiantza eta askatasun osoa dago”

## NOAUA! Zergatik ikastaro hauek emakumeentzat bakarrik?

**Josune Estella:** Guk hala behar dugulako. Zoritxarrez, gaur egun ezin dugu esan berdintasun batean gaudenik. Horrez gain, ze motxila daramagun kontuan hartu behar da, hori kentzen joateko lanketa egin behar dugu: gure sinesmenak, irakatsi digutena (emakume

perfektua izan beharra, etxea eta familia oso ondo zainduak egon beharra...)... Esango dute ezetz, baina odolean daramagu. Oraindik lan handia dugu egiteke.

## Talde dinamika hauetan, zer gertatuko litzateke gizonezko bat egongo balitz?

**J. E.:** Konfiantza hori ez litzateke egongo. Ez genuke hitz egingo

hitz egiten genuen moduan.

**Eneida Lasa:** Biodantzara joaten naiz. Hor kontaktu fisiko gehiago dago. Bertan gizonezko bat egonda, agian ez ginatete hain libre sentituko.

## Saretzearen garrantzia aipatu duzue. Hobetzekorik bada ahal-duntze eskolaren bueltan?

**J. E.:** Zabalkundea. Emakume askorengana ez dira iristen. Inoiz

parte hartu ez dutenentzat jakin dezaten, saio hauetan ez zaude behartuta hitz egitera, nahi baduzu entzuten egon zaitezke. Zure esperientzia ez zaude derrigortua partekatzerara. Konfiantza eta askatasun osoa dago. Epaietarik gabeko gunea da. Nahi baduzu saiatuko gara laguntzen, baina epaitu inoiz ez. Gainera, enpatia sortzen da.

# “Emakume gazteentzako ere oso ondo dago”

**NOAUA!** Zer ekarpen egin dizue ahalduz eskolak?

**Eneida Lasa:** Adibidez, negarra egitea ez dela batere txarra ikastea, oso onuragarria baizik. Emozioak nola landu ikasi dugu. Askoz lasaiago nago egoera askotan. Poztasun handiagoa dut bizimoduan.

**Josune Estella:** Neure burua maitatzen pila bat ikasi dut. Neure burua duela hamaika urte eta orain naizena alderatuta, aldaketa handia sumatzen dut. Oraindik lanean jarraitu behar dut, baina konfiantza izatea, gauzak egiteko benetan gai naizela ikustea, hori fisiko-ki nabaritu dut. Une bakoitza bizitzearen garrantzia ere asko landu dugu. Baita nola hitz egiten diogun geure buruari, eta besteei.

**E. L.:** Guretzat tartea hartzen ikastea. Ariketa bat hori zen. Astero opari bat egin behar ge-



“Une bakoitza bizitzearen garrantzia ere asko landu dugu”.

## ENEIDA LASA

**“Emozioak nola landu ikasi dugu. Askoz lasaiago nago egoera askotan”**

nion gure buruari eta gero taldean komentatu.

**Babesa aipatuta, Emakumeen**

**Etxearen irekiera ahalduz prozesuotan lagungarria izan da baita ezta?**

**J. E.:** Erreferente bat izango da. Indartzen lagunduko du, agian jende gehiago mugitzen baita. Egoteko leku bat izango dugu, ikasitakoa lantzeko gune bat.

**Zuen esperientziatik, beha-**

**rezkoa iruditzen zaizue ahalduz eskola hauek antolatzen segitea?**

**J. E.:** Zoritxarrez bai, behar ditugu. Zaintza sisteman nola gauden ikusi besterik ez dago.

**E. L.:** Emakume gazteentzako ere oso ondo dago.

**J. E.:** Pepari eskerrak eman, baita hau antolatzea bururatu zitzaionari ere. Eskerrak, bihotz-bihotzez, parte hartu dugun emakume guztion partez.

**Ahalduz eskolek zer eragin izan dute zuen ingurunean?**

**J. E.:** Beste emakume batzuen familiakoek, bai seme-alabek nahiz bikoteek ama edo bikotea Peparen saioetara joatea nola nabaritu duten kontatu izan dute. Benetan nabaritzen dela diote, ez dakigu non dagoen aldaketa, baina familiek nabaritzen zutela. Gu ondo bagaude, ingurua ere ondo egongo da.



**USURBIL**  
OPTIKA

**4** Urteko  
Garantia

Interes Gabeko  
Finantzaketa  
\*Banketxeak onartzean

Entzumen azterketa  
**DOAN**

Entzun  
telebista  
eta mugikorra  
zure audifonoetan

**PILARIK GABEKO**  
TEKNOLOGIARIK AURRERATUENA

**943 37 02 69**

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL [usurbiloptika@hotmail.com](mailto:usurbiloptika@hotmail.com)



**G15 USURBIL**  
HICIEZINA | INMOBILIARIA



**PISUA SALGAI**  
Igogailua, fatxada bentilatua,  
3 gela, 2 komun eta Garajearekin.

**688 739 733**

Etxebeste Kalea 15, USURBIL [info@g15usurbil.eus](mailto:info@g15usurbil.eus)

	I				H
		O	A		D
			O		E
	D	E		A	
A			I		O
E		I		H	

**Sudokua**

Bete hutsuneak HODEIA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.




**Zer da?**

Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrak ditu gogoko. Oso ongi daki igerian eta arrainak jaten ditu. Zoritxarrez halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman beheko hizkietako bakoitza dagokion lekura eta hortxe agertuko zaizu.



R B A I G A A




**Margotu**

Gure lagunak arrain bat ikusi du uretan eta hura harrapatzea doa. Inguruan belarra eta sastraka dago eta euria ari du. Marraztu eta margotu eszena.

**ALdea dago!**

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. 14 dira guztira.





# HANDIENETIK TXIKIENERA






Zazpi loreok handienetik txikienera ordenatu behar ditugu. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 7.



## DOMINOAN

Marraz itzazu falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia

## Zeeer??!!

Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren gezitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

Zumeta

Muralaren 50. urteurrena



1973 - 2023



Irudia: Antton Elizegi / © San Telmo Museoa, Donostia.

**ERAKUSKETA**

# ZUMETAREN MURALAK 50 URTE

**Apirilak 29 - Maiatzak 15**  
**Sutegin**

Bisita gidatua Usua Zumetarekin

Maiatzak 1 / 11:00

Izen-ematea: [650usurbilbizi.eus/agenda](http://650usurbilbizi.eus/agenda)

**BISITA GIDATUAK**

*Usurbil Museo Irekia*

Apirilak 29 eta maiatzak 6, 7, 13, 14, 27 eta 28

Sutegin hasita / 12:00 / Prezioa: 3€\*

\*18 urtetik behera, doan

Izen-ematea: [650usurbilbizi.eus/agenda/](http://650usurbilbizi.eus/agenda/)



Zumeta  
ARTE  
ESTUDIOA




Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



## Aritzeta eta Kalezar lotuko dituen errepide bat egitea proposatu du EAJ-k

Xabier Otxoa Usurbilgo EAJ-PNVko zerrendaburuak Aritzeta eta Kalezar errepide berri batekin lotzeko proposamena luzatu du. “GI-20 errepidean dagoen Aritzeta zerbitzuetatik Kalezar-reraino lotu dezakeen errepide berria eraikitzeko beharrezkoa den lan guztia egiteko konprometitzen gara”, zioen Instagram bidez zabalduko bideo batean.

Xabier Otxoaren esanetan, “gaur egun Usurbil moduko herri batek daukan herriko sarrera-irteera onartezina da. Ez da batere segurua. Ez oinezkoentzako, ez bizikletentzako ezta ibilgailuentzako ere. Horregatik proposatzen dugu beste sarrera-irteera berri bat, Aritzeta zerbitzuetatik eta Kalezar lotuko duena. Eta hori posible egiteko beharrezkoa den lan guztia



Xabier Otxoa, Usurbilgo EAJ-ko alkategaia.

### XABIER OTXOA

**“Usurbil moduko herri batek daukan herriko sarrera-irteera onartezina da”**

egitera konprometitzen gara”.

### Instituzioen arteko elkarlana

Hau gauzatzeko erakundeen arteko “ezinbesteko lana behar harko da, batez ere Foru Al-

dundiaren eta Usurbilgo Udala-ren artekoa, eta gu prest gaude elkarlan horretarako”.

Maiatzeko udal hauteskundeetara begira, EAJ-PNV alderdiak hautes-zerrenda osatzen segitzen du. “Honekin batera, Usurbilgo ekonomia zein kultura arloko eta gizarte eragileekin datozen urteetara begira herriak izango dituen erronkak kontrastatzen ari gara”.

## Hauteskundeetara bidean

Udal eta foru hauteskundeak ofizialki deitu zituzten apirilaren 4az geroztik zabalik da maiatzaren 28ko hitzordura begirako botoa posta bidez ematea eskatzeko epea. “INEren (Estatistikako Institutu Nazionala) webgunean edo Correosen eskuragarri dagoen inprimaki bat beteta bideratu ahalko da eskaera”. Egun horretan, gainera, Zubietako Herri Batzar berriaren osaera ere erabakiko da. Deialdi hau ere modu bateratuan sinatu zuten martxo amaieran Usurbilgo eta Donos-



Udarregiko hauteslekuak kiroldegian ipini zituzten pandemia garaian. Udarregira itzuliko dira maiatzaren 28an.

tiako alkate, Agurtzane Solaberrieta eta Eneko Goiak hurrenez hurren.

### Bi aldaketa hautesleketan

Iragan astean, bestalde, botoa emateko hauteslekuen zerrenda argitaratu zuten. Bi aldaketa aurtengoan; osasun krisialdiagatik Eusko Legebiltzarreko 2020ko hauteskundeetan Oiar do kiroldegira lekuz aldatu ziren mahaiak Udarregi ikastolako erdiko aretoan kokatuko dituzte berriz. Bestalde, Herri Batzarreko hauteskundeetan bozka emateko mahaiak Kaxkapen jarririko dute estreinakoz. Orain arte, Alamandegira joan beharra izaten zen.

## EHBilduk ostiral honetan aurkeztuko du bere hautes-zerrenda

Hauteskunde giro betean murgiltzera goaz asteotan. Maiatzaren 28an izango dira udal eta foru hauteskundeak. Gogoan izan, Usurbilgo udalbatza osatzen duten hiru taldeetako zerrendaburuak aurreko hilabeteotan eman dituzte ezagutzera. Usurbilgo EHBilduk beste urrats bat emango du orain. Zerrendaburuak nor izango den ezagutarazi zuen otsailean; Agurtzane Solaberrieta Mesa izango da, egungo alkatea. Hautes-zerrenda osoa ostiral honetan aurkeztuko du Mikel Laboa plazan. 18:30ean hasiko da ekitaldia.

Aipatu moduan, orain, zerrenda hori osatuko duten gainerako kideak ezagutzeko aukera izango da. Usurbilgo EHBilduk hautagaien zerrenda osoa aurkezteko ekitaldia antolatu du ostiralean, apirilaren 21ean, arratsaldeko 18:30ean Mikel Laboa plazan. “Datorren ostiralean datozen udal hauteskundeetarako EHBilduren ekipoa aurkeztuko dugu!”, iragarri du EHBilduk sare sozialen bidez. Zerrendaburuak den egungo alkateak aurreratu duenez, “oso pozik datorren legealdirako osatu dugun zerrendarekin: eskarmentua, herrigintza, gaztetasuna eta gertutasuna uztartzen ditu, eta, batez ere, ilusioa eta go-goia herri hobetzaileak eraikitzen jarraitzeko. Zatoz aurkezpenera”, egin die gonbita herritarrei.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontzeju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patxi  
bazkariak EGUNERO  
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

943 362725  
688 690 361

## Mobilizazio gehiago Osakidetzan

Osasun sistema publikoaren defentsan beste bi greba egun deitu dituzte SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO eta UGT sindikatuek: maiatzaren 18an eta 19an, Osakidetza osoan. Aurretik, Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak manifestazioak deitu ditu larunbat honetarako, apirilak 22, EAEko hiriburuetan Osakidetza desegitearen kontra, “osasungintza publikoa indartu” aldarripean. Donostiako 17:00etan abiatuko da Bulebarretik.

### Bigarren lan-istripu larria Zubietan gainean

Hiru asteko tartean bi lan istripu larri izan ziren Zubietan gainean. Eskuzaitzeta industriagunean lanean ari zen langile bat larriki zauritu



Maiatzaren 18 eta 19rako bi greba egun deitu dituzte.

### MANIFESTAZIOA

**“Larunbatean Donostian manifestazioa egingo da arratsaldeko 17:00etan, ‘Osasungintza publikoa indartu’ lemapean”**

dela berri eman zuten Euskadiko suhiltzaileen elkartetik

martxoaren 31n. Lanean ari zela, hiru metrotatik behera erori zela gaineratu zuten. Martxoaren 10ean, bestalde, erraustegiko langile bat larriki zauritu zen metalezko zepak tratatzeko plantan. 26 urteko behargina bertako uhal garraiatzailean harrapatua geratu zen.

## Usurbilgo Sare: “Aro latz bat amaitu da”

Etapan baten amaiera irudikatu zuen Usurbilgo Sarek martxoko azken ostiraleko elkarretaratzean. “35 urte eta gero amaitu da izugarritzko sufrimendua eragin duen aro latza. Bukatu da euskal presoaren sakabanaketa eta urrunketa. Azkenean lortu dugu, iritsi da euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko egin den lan nekaezinaren emaitza”, adierazi zuten deitzaileek mobilizazioaren amaieran.

Une honetara heltzeko bide-lagun izan dituztenak eta haiek guztiek eginiko ahalegina nabarmendu nahi izan zuten, tar-



“Etapan bat amaitu da baina orain arteko bidea ez da hemen amaitzen”, dio Sarek.

tean, Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dispersaturiko presoak bisitatzeko bidaietan lagundu dutenak, sakabanaketak eragindako ondorio bidegabeak gogoan hartzearekin batera.

Etapan bat amaitu da bai, baina orain arteko bidea ez

da hemen amaitzen, Usurbilgo Sarek gogorarazi duenez. “Aurrera egin dezagun beraz. Etxera lelopean, azken urteetan egin dugun bide beretik, lanean jarraitu behar dugu etxerako bideari bukaera eman arte”.

## Errenta euskaraz aitortzeko deia

Autolikidazio proposamenak onartu, errenta mekanizaturako nahiz online modalitateko hitzordua eskatu eta errenta aitortpenak aurkezteko epea zabalik da jada. Informazio gehiagorako gipuzkoa.eus / 943 113 000.

### Modu ugari aukeran

Usurbilgo udalerrria kide duen UEMA-k errenta aitortpena euskaraz bideratzeko deia egin du aurten ere. “Errenta euskaraz egiteko modu bat baino gehiago daude: autolikidazio proposamena onartzeko orduan, eta baita aitortpena Interneten edo modu mekanizatuan ogasunaren bulegoetan aurrez aurre egitean ere, euskaraz egin nahi duzula hautatuz edota dagokion langileari horrela adieraziz. Bestalde, aitortpena gestoria batean eginez gero, errenta aitortpena euskaraz egiteko eta ogasuneko harremanetan euskaraz aukeratzeko borondatea ere adierazi daiteke”.

## Langabetu kopurua, behera

Murrizten segitzen du langabetu kopurua Usurbilen. Azken 15 urteotako datu baxuena erregistratu du Estatuko Enplegu Zerbitzuak Usurbilen: 191, martxoan. Kontratazio datuei dagokienez, otsailetik martxora 220tik 287ra arte gehitu da Usurbilen erregistraturiko kontratu kopurua. Gehienak, 226, aldi baterako.

ARRANDEGIA  
**PELLO**  
ASTEARTETIK-LARUNBATERA  
8:30-13:30  
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI  
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen  
943 360 321  
publizitatea@noaia.eus

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
600 024 825

## 3. Uxue Trail mendi lasterketa solidarioan izena emateko aukera

**A**ndatza inguratzen duen elkartasun ekimen honen bidez, herrikidea dugun Uxue Martinek duen Phelan-McDermid izeneko gaixotasun arraroa ezagutarazi nahi dute, sentsibilizatu eta eritasun honen ikerkuntza sustatzeko laguntza bildu.

534 izen-emate erakarri zituen iazko hitzordu arrakastatsuen ondotik, hirugarren edizioa iragarri du antolakuntzak, ekainaren 18rako goizeko 9:00etan.

**Bi lasterketa: bat luzea, bestea motza**

Bi lasterketa izango dira aukeraren, luzea (20 kilometrokoa) edo motza (11,5 kilometrokoa). 5,5 kilometroko paseoa parte hartzeko aukera ere egongo da.



534 izen-emate erakarri zituen iazko hitzorduak.

### 3. UXUE TRAIL

**“Izen-ematea kronoak.com web atarian egin daiteke”**

#### Dortsal solidarioa

Lasterka ibili beharrik izan gabe, dortsal solidarioa ere es-

kuratu ahalko da, diru ekarpenaren truke.

#### Izen-ematea

Modalitate hauetarako gutzietarako izen-ematea zabaldu dute kronoak.com atarian. Uxueren gaixotasun arraroari buruzko informazio gehiago atari honetan: 22q13.org.es

## “Badator Aztarri-Cup”

Asteburuko gauak gogotik girotu izan dituen Aztarri Usturilgo Gazte Asanbladak antolatutako ekimen arrakastatsua bueltan dator. Maiatzaren 12an hasiko da eta ekainaren 17an amaitzea aurreikusia dute. “Ostiral gauetako planik ez? Hainbat astez kirolaz gozatzeko aukera paregabea izango duzue!” iragarri dute. Hockeya

eta artzikiroletan parte hartzeko aukera eskainiko dute.

Parte hartu nahi dutenentzako izen-ematea ere zabalik du gazte asanbladak. Taldearen izena, logoa, baliatuko duten kamisetaren kolorea, partaideen izen-abizenak eta NAN zenbakiak, kapitainaren izena eta telefono zenbakia zehaztu beharko dira.

#### Izen-ematea apirilaren 24an amaituko da

Izena emateko aukera izango da apirilaren 24ra arte. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, gutxienez zazpi kideko taldeak osatu beharko dira, talde mistoak. Apuntatzerakoan, talde bakoitzak 20 euroko bizuma egin beharko du telefono zenbaki honetara: 688 613 715.

## “Bizi amaierako prozesuak, dolua eta galerak” aztergai Santuenean

Santuenea elkarteak antolatuta, apirilaren 28an 18:30ean auzo elkarte honen egoitzan. Bihotzetik izeneko plataformako arduradun Javier Aramendia ariko da hizlari lanetan. “Bizi amaierako prozesuak, dolua eta galerak gizatiartu eta naturalitzea du helburu. Heriotza

ardatz duelarik denok ditugun kezken inguruko solasaldia izango da. Gai praktikoak ere landuko dira: sedazioa edo eutanasia? Testamentua edo azken borondateak?”. Hitzordura joan asmo duenak, aurrez izena eman dezake 670 027 731 telefono zenbakira deituta.



Javier Aramendiak eskainiko du hitzaldia.

### Usurbil, Oinherriren bazkide laguntzaile

Oinherri herri hezitzaileen egitasmoan sartzea erabaki zuen Usurbilgo Udalak 2020. urte hasieran eginiko osoko bilkuran. Ordutik, egitasmoa bera 2020-22 udal diru-laguntzen plan estrategikoan onartu zenetik, urtero hitzarmen bidez lagundu du udalerrri honek. Urrats berria ematea erabaki du orain. Hain zuen, 36 udalerririk osaturiko Oinherri dio diru-laguntza hitzartuak “ez diola juridikoki erantzuten ibilbide honetan sortutako beharrari”. Egoera horren aurrean, “Oinherri, irabazi asmorik gabeko elkarte publiko komunitarioa publiko bilakatzea” proposatzen da eta “Udalak bazkide laguntzaile gisa atxikitzea”.

Proposamena gehien-oso (EHBildu eta PSE alde. EAJ abstentzioa) onartu zuten martxoaren 30ean egindako osoko bilkuran. Aldaketa honekin, parte hartzea bermatu bai baina herri hezitzaileak sustatzeko elkartearen erabakietan bozka eskubiderik ez du izango. Informazio gehiago, herrihezitzailea.eus atarian.

### KzGunea

Arratsalde zabalduko dute KzGunea apirilean, 16:00-20:00 artean. Maiatzean, beraz, goizez, 9:00-13:00 artean. Hemen datozen ikastaroen berri:

■ Maiatzak 2-15, 09:00-11:00 “Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi”.

■ Maiatzak 17-19, 09:00-11:00 “Sortu bideoak zure gustukoaren irudiekin”.

■ Maiatzak 22-31, 09:00-11:00 “Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin”.

■ Informazio gehiagorako: 943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

# Jon Zumeta eta Imanol Galarraga, Agiña Winter Series-eko txapeldunak

**A**pirilaren lehenean aginagarren arteko partida eta final handia jokatu ziren Aginagako Ariztitxo pilotalekuan. Segidan emaitzak:

■ Aginagarren arteko partida:  
X. Murua-D. Errasti 19

A. Arruti-I. Arruti 22

■ Finala:

I. Agirretxe-B. Lorenzo 12

J. Zumeta-I. Galarraga 22

## Tokiko produktuen zozketa

Finalaren amaieran, zozketa bat egin zuten Eliza Zaharrean, bertako sagardotegi eta jatetxeetarako otorduak edota Aginagako produktuez ederki hornituriko otarrak. Han Goiko Arrautzak, Iyarbeko esnea, Cantabrica arraindegia, Mayoz angulak, Txapartegi harategia, Sekaña erretegia, Mapillerrekako babarrunak... Ariztitxo frontoian finalak gertutik ikusten aritu ziren bitartean, errifak erosi zituztenen artean zozketatu zituzten.



Argazkian, txapelketako finalistak. Zumeta-Galarraga izan zen bikote garailea.



Finalaren amaieran, zozketa bat egin zuten errifak erosi zituztenen artean.

## Itzulia, gure artetik

Ohi bezala, begiak itxi eta berri ireki orduko igaro ziren Itzuliko txirindulariak udalerrri honetatik. Apirilaren 5ean Oreretan hasi eta Amasa-Villabonan amaitu zen hirugarren etapak Usurbil eta Aginaga zeharkatu zituen N-634 errepideetik barrena. Hiru txirindulari tropeletik ihesean, gainerakoak batera, ziztu bizian.



Euskal Herriko Itzulia Usurbildik igaro zen apirilaren 5ean.



## Beñat Lizaso, txapeldunorde

Gipuzkoako txapeldun eta Euskal Pilota Egokituko txapeldunordea dugu Beñat Lizaso usurbildarra. Apirilaren 9an, Irungo Uranzu frontoian Yann Meunierrekin batera jokaturako finala puntu batengatik galdu zuen. Manu Quesada eta Maixi Cabanne aurkari zituen norgehiagokako azken emaitza 25-24 izan zen.

Bezperan, hilaren 8an, Paun Handi Tour txapelketako finalak jokatu ziren. Pagazpe txapeldunorde izan zen Ezker Paretako modalitatean, hirugarren postuan sailkatu zen trinketean. Beñatek berak eta Leire Troitiñok ordezkatu zuten Pagazpe elkarte.

## Lur Errekondo txapeldunorde, "Harri Herri" lehiaketan

Azken asteotan ETB-k jokoan jarri duen harri-jasotzaileen lehiaketan txapeldunorde amaitu du Usurbilgoa kide zuen Mollarri taldeak. 88 kiloko koadroarekin lehiatu da Errekondo. 12 emakumezko eta 16 gizonezko harri-jasotzaileek parte hartu dute ekimenean.

**ARANKA**  
BERRIKUNTZAK

· Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak  
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
· Igeltseritza orokorra

722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4 RPS: 19/22 20170  
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

**Uraitz, s.l.**

Igeltseritza  
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

# “Usurbil Kirol Elkarteari esker, gure seme-alabek esperientzia paregabea bizitzeko aukera izan dute”

Usurbil Kirol Elkartea pozik bueltatu da Calellatik. “Oso balorazio positiboa egiten dugu. Txapelketaren lehenengo edizioa izateko, ez dugu inolako arazorik izan eta bai jokalariei, bai entrenatzaileei, eta baita zuzendari-tzakoak ere oso gustura itzuli garea baieztatzen dugu”, adierazi dute ohar baten bidez. Gurasoek, aldiz, Usurbil KE taldekoen lana goraiatu dute: “Lan bikaina egin duzue, zorionak!”.

Calellara Ostegun Santuan iritsi ziren, “eta ostiral goizean hasi ginen partidak jokatzen”, Usurbil KE taldekoek aditzera eman dutenez. “Larunbatean ere multzoko partidak jokatzen ziren, eta igandean, berriz finalak. Aipatu beharra dago Usurbil Kirol Elkarteak maila guztietan finalera sartu zituela taldeak”. Biharamunean, iluntzean abiatu ziren Calellatik Usurbil aldera eta “goizeko 3:30 aldera iritsi ginen”. Nekatuta, baina pozik esperientziarekin eta bertan erdietsitako kirol emaitzekin.

## Calellara joandako gurasoak: “Eskerrik asko, Usurbil KE”

Usurbil KE taldeko jokalariei eta entrenatzaileei batera, guraso kuadrilla bat ere bertaratu zen Kataluniako Calella herrian jokatu zen txapelketara. Handik bueltan, esker oneko idatzi bat igorri dute NOAUA!ko erre-dakziora. Gurasoen gutunak honela dio: “Aurten, lehenengo



Usurbil KE eskubaloitako neska-mutilak Kataluniako Calellan jokaturiko txapelketa batean aritu ziren Aste Santuko oporretan. Gurasoak ere bertaratu ziren eta ohar baten bidez Usurbil KE taldearen ahalegina goraiatu dute.

## USURBIL KE

### “Gure taldeek maila guztietako finaletan sartzea lortu zuten”

aldiz, Usurbil Kirol Elkarteak eskubaloitako torneoaren antolatzaile gisa (Bartzelonan). Herriko 80 neska-mutil inguru izan dira bertan lau eguneko eskubaloian jolasten. Sariak ere ekarri dituzte! Giro ederrean kirola egiteaz gain, lagunartez gozatu, jende berria ezagutu, eta esperientzia ederra bizitzeko aukera paregabea eman diozue herriko gazteei. Horregatik, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizuegu

hori posible egin duzuen Usurbil Kirol Elkarteko kideei eta entrenatzaileei. Lan bikaina egin duzue. Zorionak!”.

## Zozketako zenbaki saritua

Usurbil KE-ren azken zozketan hau izan zen zenbaki saritua: 4185. Saria, Urdaira sagardotegian bi pertsonentzako bazkaria edo afaria. Saritua hona deitu behar du: 678 068 508.

## Calellako Eskubaloitako Txapelketako finalak

### Infantil mutilak

Usurbil Kirol Elkartea 13  
Unió Esportiva Calella 12

### Infantil neskak

Usurbil Kirol Elkartea 5  
BM Cardedeu 15

### Kadete neskak

Usurbil Kirol Elkartea 10  
Zarautz ZKE 12

### Kadete mutilak

Usurbil Kirol Elkartea 8  
Zarautz ZKE 10

### Jubenil neskak

Usurbil Kirol Elkartea 11  
CH Terrasa 19

### Jubenil mutilak

Usurbil Kirol Elkartea 17  
Unió Esportiva Calella 14

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**ZENDOIA**  
**ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
urdaintzi@euskainet.net  
IT-ak egiten dira  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**BORDATXO**  
taberna  
Pintxo Bereziak  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

# Alebin errendimendu mailan txapeldun

# Txirrindulari gaztetzoen topaketa



Arrillaga-Soroa bikotea Arrasaten jokotutako finalean nagusitu zen. Anoetako Kuku Pilota Elkartearen izen aurkaria.

Iruki taldeak antolatuta, infantilak, alebinak eta benjaminak Urbil merkatalguneko zirkuituan lehiatu ziren.

Pagazpe alebin errendimendu mailan ekialdeko txapelketan nagusitu zen apirileko lehen asteburuan. Arrillaga-Soroa bikotea Arrasaten jokotutako finalean izan zen. Anoetako

Kuku Pilota Elkarteko aurka jokotutako neurketa 16-6 irabazi zuten Usurbilgoek. "Ayuso ere beraiekin taldean egon da txapelketan. Zorionak hirukote!"

Urbil merkatalgunea txirrindulari gaztetzoen topagunean bilakatu zen apirilaren 2an. Iruki taldeak antolatuta, infantilak, alebinak eta benjaminak lehiatu ziren. Aipatu talde ho-

retako kideak dira bost herrikide: Oihan eta Haritz Herrera, Adur eta Eñaut Soroa eta Anje Larburu. Irukik Donostialdeko hainbat herrietako txirrindulariak batzen ditu.

## Plazan Bazan, 16/17 orrialdeetako soluzioak

**Sudokua**

D	I	A	E	O	H
H	E	O	A	I	D
I	A	H	O	D	E
O	D	E	H	A	I
A	H	D	I	E	O
E	O	I	D	H	A

Bete hutsuneak HOEETA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela letra, zutabe eta arrea bakoitzeko.

**ALdea dago!** Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. 14 dira guztira.

**Zer da?**

Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrek ditu gogoko. Oso ongi daki igerian eta errainak jaten ditu. Zoritasarez halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman behako hizkiak bakoitza dogakion lekura eta hortxe agertuko zaizu.

**Margotu**

Gure lagunak arrain bat ikusi du uretan eta hura harrapatzen doa. Inguruan belarra eta sastroka dago eta euria ari du. Marraztu eta margotu eszena.

**HANDIENETIK TXIKIENERA**

Zazpi loreak handienetik txikienera ordenatu behar ditugu. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 7.

**DOMINOAN**

Marraz itzazu falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.

**Zeeer??!** Zer diote gure lagunetxoek? Hasi bakoitzaren geiztoetik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

**MARITXU**  
NORA ZOAZ  
EDER GALANT HORI

**ITURRIRA**  
BARTOLO NAHI  
BADUZU ETORRE

Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia



**ETXEBIZITZA****Salgai****Alokairuan**

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonadira litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batentzako. 618032966

**MOTORRA****Salmenta, garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarre-

ran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gurgil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m<sup>2</sup> garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Zaintzailea behar dugu aste-buruetan pertsona heldu batentzat. Euskalduna bada hobe. 616 273 785.

Sukaldari bat behar dugu Kale-zarko Matiairen zaintzadun

etxebizitzaren auzuneko kafetegi-rako. 670 654 272.

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrik eman-go dizkion pertsona baten bila gabiltza. 608201745

Klase partikularrik emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko.

660788832.

Zerbitzaria behar da Atxega jantzetxean. 666 671 444

**Lan eskaerak**

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen: 602 586 014.

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarik egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partiku-

larrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. Harremanetarako: 688 645 491 (Nahia)

**BESTELAKOAK**

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pautoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdu duenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

**Futbol partidak****Haranen:****Apirilak 22, larunbata**

■ 11:30 Infantil mutilak:

-Usurbil FT

-Antigua Luberrri KE

■ 16:00 Jubenilak:

-Usurbil FT B

-Martutene KE B

**Apirilak 23, igandea**

■ 11:00 Kadete

preferenteak:

-Usurbil FT

-Bergara KE B


■ 17:00 Erregionalak:

-Usurbil FT

-Irauli Bosteko KK

**Zorionak Oihan!**

Eguzkiari lehen bira eman zenion apirilaren batean. Zeinen azkar pasa den denbora! Ederki ospatu genuen etxe-giro goxoan. Asko maite zaitugu, begi urdin!

**Zorionak Ander!**

Apirilaren 17an 9 urte beteko dituzu, muxu potolo bat etxekoan partetik!

**Zorionak Aratz eta Eider!**

Apirilaren 10 eta 15ean egin dituzue urteak. Ederki pasa genuen eta muxu handi bat bidaltzen dizuegu familia guztiaren partez. Besarkada bana!!

**Zorionak Aitor eta Gorka!**

Apirilaren 18an egin dituzue 12 urte! Zorionak eta muxu handi bat osaba eta Marenen partez!

**Zorionak Jare!**

Apirilaren 10ean 7 urte handi bete zenituen! Muxu erraldoia ama, aita eta Oihanen partez. Ilargiraino eta bueltan matte zattugu!



**Zorionak Danel!** Mutil handia egiten ari zara! Apirilaren 25ean 8 kandela itzaliko dituzu eta guk zure ondoan ospatuko dugu! Zorionak etxekoan partez!

**Heriotzak****Dimitri****Fedotov**

Martxoaren

20an hil zen,

27 urterekin

**Heriotzak****Luis Udabe****Borda**

Apirilaren 6an

hil zen, 84

urterekin.

**Heriotzak****Miguel Izeta****Olozaga**

Apirilaren

13an hil zen,

88 urterekin

**Goardiako farmaziak**

**Osteguna 20** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Ostirala 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Larunbata 22** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Igandea 23** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Astlehena 24** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 25** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Asteazkena 26** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Osteguna 27** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Ostirala 28** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Larunbata 29** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 30** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak irekita  
egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
GOMEZ BRAVO, MARINA  
Kale Nagusia, 14 Hernani  
943 55 48 92

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.**

# Agenda apirila

## 20 osteguna

■ **Zaintza hitzaldi zikloa: "Zaintza lanak: autonomia eta burujabetza sustatzeko eredurantz".** 18:00 Potxoenean. Hizlariak: Izaskun Jimenez, Laura Fernandez Cordero.

## 22 larunbata

■ **Dantzaroa: V. Helduen Dantzari Topaketak.** 11:30 "Hala bazan!" emanaldiaren entsegu irekia Aginagako frontoian. 17:30 Argazkia udaletxean eta kalejira hasiera. 18:30 Emanaldi nagusia frontoian. 00:00 Erromeria Iratzarrekin frontoian.

## 23 igandea

■ **Dantzaroa: IV. Dantzari Txiki Eguna.** 11:00 Dantzarien argazkia udaletxean eta kalejira hasiera. 13:00 Emanaldi nagusia Usurbilgo frontoian. 16:30 Erromeria Elizagoien ahizpen eskutik Artzabalena.

## 'Dantzaroa' zikloa asteburu honetan hasiko da

Orbeldi Dantza Taldeak antolatutako ekimen sorta abiatzeaz da. Asteburu honetan ospatuko dira Helduen Dantzari Topaketa eta Dantzari txikien Eguna. Datorren asteburuan amaituko da Dantzaroa, XI. Dantza Eguna.

### Apirilak 22, larunbata:

#### V. Helduen Dantzari Topaketak

- 11:30 "Hala bazan!" emanaldiaren entsegu orokor irekia Aginagako frontoian.
- 17:30 Dantzarien argazki ofiziala udaletxean eta kalejira hasiera. Taldeak: Orbeldi, Ortzadar, Arantzarte, Haize Dulantzi.
- 18:30 Emanaldi nagusia frontoian.
- 00:00 Erromeria Iratzar taldearekin frontoian.

### Apirila 23, igandea:

#### IV. Dantzari Txiki Eguna

- 11:00 Dantzarien argazki ofiziala udaletxean eta kalejira hasiera. Taldeak: Ega-pe, Jalgi, Ereintza, Murixka, Alkartasuna eta Orbeldi.
- 13:00 Emanaldi nagusia Usurbilgo frontoian.
- 16:30 Erromeria Elizagoien ahizpen eskutik Artzabalena.



Orbeldi Dantza Taldeak ekitaldi asko iragarri ditu asteburu honetarako.

### Apirilak 29, larunbata:

#### XI. Dantza Eguna

- 12:00 Kanta eta dantza kalejira, Kalezarko Felix Aizpurua plazatik hasita.
- 14:30 Kantu-bazkari irekia Udarregin. Txartelak 15 eurotan salgai, apirilaren 25era arte.
- 18:00 Tranpaldo irekia Artzabalgo frontoian.
- 22:00 "Hala bazan!" ikuskizuna frontoian. Ondoren, otarraren zozketa.
- 00:00 Erromeria Bide Batez taldearen eskutik, Mikel Laboa plazan.
- Antolatzailea: Orbeldi Dantza Taldea.
- Laguntzailea: Usurbilgo Euskal Kantu Taldea.

### Datozenak



## "Zumetaren muralak 50 urte" erakusketa

Mende erdia bete duen frontoi atzeko muralaren harira, Jose Luis Zumetaren artelan honi buruzko informazioa eskainiko duen erakusketa ikusgai izango dugu Sutegiko aretoan, apirilaren 29tik maiatzaren 15era. "Batez ere, sortze-prozesua erakusten duten artxiboak, irudiak eta argazkiak izango dira. Muralaren jatorrizko bozetoa, olio bat, estreinakoz ikusteko aukera izango da bertan". Ordutegi honetan irekiko dute Zumeta Arte Estudioak eta Usurbilgo Udalak antolatutako erakusketa:

- Astelehenetan: 17:00-20:00 (maiatzaren 1ean itxita).
- Astartetik ostiralera: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00.
- Larunbatak eta igandek: 11:30-14:00 eta 17:00-20:00.

**GRUPO MONROY**  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
943 53 72 38  
628 45 78 39 628 91 72 15  
reformas@reformasmonroy.com  
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

**ZALDIGAIN**  
ERREMENTARIA  
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.  
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....  
www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax. 943300045

**USURBIL DÖNER KEBAB**  
843 675 265  
603 609 183  
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL\_DK  
Borda Berri Kalea, 5

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA

# NOAUA!k UDALEKU IREKIETAN aritzeko HEZITZAILE eta ZUZENDARI lan poltsa DEIALDIA

## Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:

Noaua! Kultur Elkartea  
Bordaberri 3, Usurbil edo  
elkartea@noaua.eus

*-Sexu delituen ziurtagiri eguneratua bidali*

Curriculum-arekin batera  
bidaltzeko azken eguna: apirilak 20

LEHENETSIKO DA:

- Begirale  
edo zuzendari titulua izatea
- EGA izatea
- Usurbildarra izatea

**noaua**



USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)  
EZAGUTU GURE IKASTETXEA



**IZEN EMATEA**

**ATE  
IREKIAK**

**MAIATZAK 3**

16:30 Goi Maila

18:00 Erdi Maila

**MAIATZAK 6**

10:00 Erdi Maila

11:30 Goi Maila

**LANBIDE HEZIKETAKO  
AURREMATRIKULAK**

MAIATZEAN



CIFP USURBIL LHII

ETARTE BIDEA 9, ZUBIETA, USURBIL

943 364 600

[orientazioa@lhusurbil.eus](mailto:orientazioa@lhusurbil.eus)

*Zerrendaren  
Aurkezpen  
Ekitaldia*

ehbildu



# Usurbil

USURBIL

**Abante!**

**Apirilak 21**

**Mikel Laboa Plaza**

**18:30**